



## Elkarteak

Irabazi asmorik gabeko elkarteak kooperatiba barruan oinarri garrantzitsuak dira; izan ere, Ekhilur-en apustueta bat da auzo eta hirietako gizarte ehuna dinamizatzen laguntzea.

Kooperatibako erabiltzaile orok, aukera izango dute beraien txarteleko euro eta Ekhilur puntuen hilabeteko batezbesteko saldoaren %0,5 donazio bezala nahi duten Elkarteari emateko. Elkartea Ekhilurren barruan egon behar du noski.

Halaber, elkarteak kantitate horiek jasoko ditu Ekhilur puntutan, sareko enpresa eta dendetan gasta ditzakeenak, baina ez eurotan aldatu.

Kooperatiban elkarre moduan alta emateko gure webguneko "Egin zaitetz bazkide" ataleko izen emate formularioa bete behar da eta kooperatibako kapital sozialean 50€-ko ekarpena egin. Behin eskaera onartuta, 5,95€-ko Ekhilur txartela erosi eta App-tik edo webgunetik aktibatu. Txartelaren mantentze kostua hileko euro batekoa izango da eta gutxienez 20 €-ko kopuruaz kargatu daiteke nahi adina aldiz App-tik, webgunetik edo epe laburrean ezarriko ditugun guneetatik.

Horrezaz gain, elkarteek kooperatibari hileko saldoaren batez bestekoaren %0,5 ordainduko diote Ekhilur puntutan.